

# ARAMA ZAITEZ

8.zenbakia

2015eko apirila



ARAMAKO BERREIN BOLETINA

## Aurkezpena

Udaberriarekin batera iritsi zaigu apirila eta konturatzera, dagoeneko horrenbeste hitz egiten den udal hauteskundeak ere gainean izango ditugu maiatzaren 24ean. Eta Aramako hauteskundeetarako, herri batzarrak ekarri duen informazio guztia duzue 8.zenbaki honetan.

Beti bezala, azken hilabeteetan egin diren txango eta ekimenen berriak eta argazkiak jaso ditugu: Korrika 19 eta martxoaren 8an herriko emakumeek egindako irteera, besteak beste..

Bestalde, abenduan Araman etxe bizitza nahi duten zenbait herritarrek beraiena nolakoa nahi duten galdetu ondoren emandako erantzunak ere baditugu.

Aldizkariaren azken orrietan dituzue Ane-ren errezeta eta parte hartzeko hitz zopa lehiaketa.

## Agenda

- |                |  |
|----------------|--|
| APIRILAK 22    | <b>Partaidetzako aurrekontu tailerra ALTZAGAKO ARTEA ELKARTEAN</b> |
| APIRILAK 15-27 | <b>Bake epaile bezala eskaera egiteko epea</b>                     |
| MAIATZAK 24    | <b>Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak</b>                 |

Bukatzeko, gogoratu, zuengandik, herritarrengandik gertu egoten eta Udala eta herritarren arteko harremana hurbiltzen ahalgintzen garela; beraz, aldizkari honetan norbaitek proposamen bat badu zerbait kontatzeko aldizkarian parte har dezake.

**Animatu!**

**Aldizkarian**

**Parte**

**hartzea**

Ez ahaztu udaleko informazio guztia **arama.eus** web orrian duzuela.

Espero dugu zuen gustokoa izatea!

## KORRIKA 19

### Korrika, handiena

Aurten ere gauez tokatu zaigu Korrikari ongiatorria egitea gure herrian eta euriak blaitu bagintu ere, gogoia ez zen falta izan korrika egiteko.

Korrika 19n balorazioa oso haundia izan da eta emozioz jositako KORRIKA bizi izan dugu.

Milaka lagun bihurtu dira Korrikaren argazkilari eta geureak ere hementxe!!



**GU ERE EUKALAHALDUN GARA**







## ARAMAKO EMAKUMEEN EGUNA



**Martxoaren 8an**, Emakumeen Nazioarteko Egunean, goian azaltzen diren Aramako emakumeak, irteera antolatu zuten eguna ospatu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko.

Irteera Mandubitik Kizkitzara egin zuten eta gero Astigarreta auzoa bisitatu ondoren, Mandubiko Bentan bazkaldu zuten.

Denon erronka da emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ibilbidea.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA	
							
		UDAKO TENPORAK					
4 O lbelea	5	6	7 15:40 Ilgora	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18 O lberria	19	20 11:43 Ilbehera	21	22	23	24	
25	26	27 	28	29 	30 	31	

**Beste landak:**

Baratzean aldatu eta ereiteko garai nagusia da hau. Hotzarekin sentiberak diren solanazea familiako landareak (tomate, piperr, bererjiena...) kanpoan lasai aldatu ditzakegu hilaibete honetan.

Arto-babarrunak ereiteko ere hilaibete egokia da.

Sagastian, harjuak (*Carpocapsa tximeleta*) fruta kalteru ez dezan jarrapena egin. Tximeleta kopurua ugaritzean, *Bacillus Thuringiensis*arekin tratamenduak egiten hasi.

Soropilak erain. Garaiko landare apaingarrak aldatu; geranioak, alegriak, tegeteak, koleoak, begoniak, etab.

Orain da udarari jango dugun barazkien landaketa handienaren garai. Konturatu hartu landutako errotaioa eta baita oso garrantzitsuak izaten diren asoziazioak. Eta argi kompetentzia izaten diren belarretan, akolixatuak mesedea egingo digu. Baina kontuz bareekin.

**ERETIN**  
Babesparr / Negutegiari: Pornua, erremolatxa gorria, azenarioa, arbia, letxuga, apioa, rukula, rabarritoa, baina, babarruna, arttoa, kalabaza, kalabazina, aza, brokolioa, azalorea, bruselako aza, lonbarda

**LANDATU**  
Babesparr / Negutegiari: Tomatea, piperra, bererjiena, albahaka  
Aire librean: Azelega, letxuga, kalabazina, kalabaza, pepinoa, meloia, sandia, piperra, tomatea, bererjiena, albahaka

**Egun egokienak lan bakoitzerako:**

**Fruitua:** tomatea, kalabaza piperr, babarrun, hazitarakoak...

**Sustrai:** azenario, arbi, erremolatxa, patata, ipula...

**Lorea:** lorea, girasola, brokuli...

**Ostoa:** letxuga, pornua, eskarola, aza, espinaka...

**ATSEDENA**

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
1	2 O ilbeta	3 23:14 Ilgora	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16 Ilberria 21:44 Ilbetera	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

**ERETN**  
Babespean / Negutegiari: Baina, babarruna, artoa, kalabaza, kalabazina, pepinoa, erremolatxa gorria, espinaka, azeiga, azenarioa, arbia, letxuga, apioa, aza, brokolia, azalorea, bruselako aza, lonbarda

**LANDATU**  
Babespean / Negutegiari: Tomatea, piperra, bererijena, albahaka  
Aire librean: Letxuga, tomatea, piperra, albahaka, kalabaza, kalabazina, aza, azalorea, brokulia, bruselako aza, lonbarda, porrua

**Egun egokienak lan bakoitzerako:**

**Fruitua:** tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak ...

**Sustrala:** azenario, arbi, erremolatxa, patata, ipula...

**Lorea:** lorea, girasola, brokuli...

**Ostoa:** leixuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...

**ATSEDENA**

**Beste lanak:**

Frutu-bolelan udako kimaketa egin.

Baratza puri-puritan dago garai honean. Aldatu ditugun landareen inguruan moztutako belarra, lastoa edo antzeko materialak erabiliz lurra estaltzen probatu dezakegu, "belar

txarrak" kontrolatu eta eta ureztatzeko beharrak gurtziaz.

Azari buztan eta osin urekin tratamenduak egiten jarrai dezakegu landareak indartsu egiteko.

Hezetasun handia badugu, tomateak mildiutik babesteko tratamendu prebentiboak egiten hastea komeni da.

Erteko leho edo balkoian sukaldari erabiltzeko landare usainduak landatu.

Sasoi honetan indartsu ateratzen dira belarrak. Maiz kendu behar dira gure laboreei korpetentzia ez egiteko.

Negurako barazkien landaketa prestatzeko, kompostatutako simaurra zabaildu daiteke.

Belarra ontzeko garaiak negurako erreserba egiteko. Garoa galtzeko, ilberrian moztu.

**Maitzak 24. TOKIKO ERAKUNDEETAKO HAUTESKUNDEAK 2015**

2014ko abenduaren 11an sortu zen hauteskundeetarako kandidatura osatzeko herri batzarra. Bertan, oraingo hauteskunde hauetan berritasun batzu sortzea erabaki zen, eta horrela diseinatu da prozesua. Diseinu honetan, aurre aukeraketa prozesu bat martxan ezartzea adostu zen, eta aukeraketa hori egiteko aukera izan dugu herritarrok martxoaren hasieran. Honela, 50 herritarrek hartu dute parte prozesuan.

Behin aurre aukeraketa hau burututa, eta honek emandako emaitzak ikusirik, aurreko batzarretan planteaturiko 2 zerrenda aurkezteko proposamena ontzat hartu eta baliatuta da. Hau da, **bi zerrenda sortu dira**:

- **ARAMAKO HERRI BATZARRA**
- **ARAMAKO HERRITARRAK**

**Eta zergaitik egin de hau?**

Alde batetik, 250 biztanle baino gutxiago garenez, gure bozka nominala da, ez diogu taldeari bozkatzen, baizik eta pertsonari. Horrela, zerrenda bakarra aurkeztu ez gero, eta kanpoko talderen bat aukeztuko balitz, kanpoko hauek izango lirateke ordezkioak. Hau ekin izan nahi da.

Bestalde, udalean ahalik eta jende gehien inbolukratzea izan da helburu. Komisioak sortuko dira eta herritar ezberdinek osatuko dituzte komisio hauek.

Beraz, bi zerrenda aurkeztuko dira eta ondorengoek osatzen dituzte:

**ARAMAKO HERRI BATZARRA**

- ◆ **Jaione Bendoiro**
- ◆ **Alaine Goikoetxea**
- ◆ **Aloña Urretabizkaia**
- ◆ **Maria Rosario Urretabizkaia**
- ◆ **Joseba Basarte**

**ARAMAKO HERRITARRAK**

- ◆ **Luis Garmendia**
- ◆ **Mikel Turrientes**
- ◆ **Asier Mujika**
- ◆ **Unai Galparsoro**
- ◆ **Ricardo Rodriguez**

Legeak zerrendak 5 hautagaikoak izatera behartzen duenez, kandidaturak legalak izan daitezzen, zerrendak zinegotzi izateko prest dauden eta komisioetako kide izango diren hautagaiekin osatu dira: Beraz, hauek dira zinegotzi izateko prest dauden herritarrak:

- ◆ **Jaione Bendoiro**
- ◆ **Alaine Goikoetxea**
- ◆ **Aloña Urretabizkaia**
- ◆ **Luis Garmendia**
- ◆ **Mikel Turrientes**
- ◆ **Asier Mujika**



Azalpenak emanda, Aramako Haueteskundeetako Herri Batzarrak ondorengo eskatu edo proposatzen du:

Maiatzaren 24-ko hauteskundeetan, aukera ditzazula sei haugai hauetatik egokien iruditzen zaizkizun 4 hautagai. Eta gogoratu:

**Gehienez 4 hautagai** aukera ditzazkezu (batzu Aramako Herri Batzarra zerrendakoak eta besteak Aramako Herritarrak zerrendakoak izan daitezke). Baina beti ere 4 hautagai izan behar dute bestela bozka NULOA izango bait da.

**Edozein argibide behar izanez gero, jarri harremanetan edozein hautagairekin.**


**ARAMAKO ETXE BIZITZEN GALDETEGIA**

Abenduko etxe bizitzen inguran egin zen galdetegian udalak jasotako erantzunak hauek izan ziren:

Galdetegia erantzun duten pertsona kopurua: 8


ETXE MOTA		
Pisua	Adosatua /Txaleta	Pisua /Adosatua
4	3	1

ETXE MOTA




BEHARRA			
Orain	1-3 urte	Jendearen beharren arabera	Ez du presarik
1	3	3	1

BEHARRA




ETXEAREN IZAERA			
Alkileria erosteko aukerarekin	Tasatua	Tasatua/Librea	Alkileria erosteko aukerarekin/Tasatua
3	3	1	1

ETXEAREN IZAERA



NOLAKO ETXEAK BEHAR DIRA ARAMAN (PREZIOA)		
100.000-150.000 EURO	150.000-200.000 EURO	200.000-300.000 EURO
5	1	2

NOLAKO PREZIOAREN ARABERA



## ERREZETA BARAZKI ETA HARAGI HOJALDREA



Anne Otegi, Aramako Toki Alai Jatetxea

### OSAGIAK

Hojaldre xafla bat  
2 baratzuri 2 ale  
Azenario bat  
Tipula bat  
Piper bat  
Kalabazin bat  
200g haragi txikitu edo urdaiazpiko edo hirugarre...  
100g gazta railatu (aukeran)  
Arrautza bat  
Oliba olio, gazta eta piper beltza

### PRESTAKETA

Erregosi zartagin batean su bizitan, barazkiak txikituta, olio apur batekin. Kolore pixka bat hartu arte bakarrik, ez dute bigundu behar.

Bota bertan haragia eta eman buelta pare bat aldiz dena ondo nahastu dadin. Gehitu gazta eta piper hautsa.

Zabaldu hojaldre xafla laberako bandeja batean. Azpian berak dakarren papera jarri edo olio apur bat igurtzi.

Jarri erdian nahaski guztia luzeeran juntak libre utziz. Bota gazta gaintetik eta itxi hojaldrea hirutan, goiko alde bat, gero bestea eta azkenik ixkinak ondo zanpatu.

Margotu arrautza nahastuarekin eta jarri labe beroan 200° tara 15 edo 20 minutu.. Onegin!!

## LEHIAKETA

I	R	J	P	E	J	E	O	U	A	ASALDATU
T	O	O	T	L	N	Z	I	T	S	DEKLAMAZIO
Z	K	L	U	A	S	I	Z	A	A	EZINTASUN
U	A	I	I	S	I	N	A	T	L	ITZULERRAZ
L	M	N	S	A	T	T	M	Z	D	KILIMAKOR
E	I	P	I	I	R	A	A	N	A	KOMUNZTATU
R	L	I	K	B	A	S	L	U	T	LASAIBIDE
R	I	A	E	I	K	U	K	M	U	OLINPIAR
A	K	R	Q	D	U	N	E	O	Z	SUKARTI
Z	C	T	F	E	S	Q	D	K	Z	

euskal.info

7. ALEKO LEHIAKETANIRABAZLEA

**ANE IRRIBARRIA DA**

**ZORIONAK!!**

Udaletxeko buzoi-  
an sartu zure  
erantzuna.

Toki Alai jatetxe-  
an 2 lagunentza-  
ko asteburuko me-  
nu baten zozketan  
sartuko zara.

Zorte on.